Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

318

AGINDUA, 2010eko abenduaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluan ordezkari bat izendatzeko erakunde horren akordioa argitara ematea ebazten duena.

Ekainaren 29ko 19/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitate Antolamenduarenak, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskadiko Unibertsitate Kontseilua sortu zen. Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, 65. artikuluan adierazten duenez, Euskal Unibertsitate Sistema koordinatzeko organoa eta, unibertsitateen arloan, Eusko Jaurlaritzak kontsultatu eta aholkularitza eskatzeko organoa da Kontseilu hori. Halaber, 3/2004 Legeak 66. artikuluaren h) letran hau xedatzen du: unibertsitate erkidegokoa ez den gizarteko kide bat izango da Kontseiluko kide, unibertsitateen ordezkaria izango da eta Kontseiluaren Osoko Bilkurak, lehendakariaren proposamenez, izendatuko du. Bestalde, azaroaren 20ko 204/2007 Dekretuak, Euskadiko Unibertsitate Kontseilua arautzen duenak, kide horren izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eman behar dela argitara adierazten du 3.4 artikuluan.

Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak 2010eko azaroaren 8ko bileran hartu zuen unibertsitate-erkidegokoa ez den gizarteko kide bat Kontseiluan unibertsitateetako ordezkari gisa izendatzeko akordioa eta, behar bezala argitara emateko, hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematea Euskadiko Unibertsitate Kontseiluan ordezkari bat izendatzeko erakunde horrek 2010eko azaroaren 8an hartu zuen akordioa, agindu honen eranskin gisa agertzen dena.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 16a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

318

ORDEN de 16 de diciembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se dispone la publicación del Acuerdo del Consejo Vasco de Universidades de designación de un representante en dicho Consejo.

En virtud del artículo 6 de la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, fue creado el Consejo Vasco de Universidades. La Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, en su artículo 65, declara que dicho Consejo es el órgano de coordinación del Sistema Universitario Vasco y de consulta y asesoramiento del Gobierno Vasco en materia de Universidades. El artículo 66 de dicha Ley, establece, asimismo, en su letra h), que formará parte del mismo un miembro de la sociedad, no perteneciente a la comunidad universitaria, que representará a las universidades, nombrado por el pleno del Consejo, a propuesta de la presidencia. Por su parte el artículo 3.4 del Decreto 204/2007, de 20 de noviembre, por el que se regula el Consejo Vasco de Universidades, indica que el nombramiento de este vocal debe ser publicado en el Boletín Oficial del País Vasco.

Habiendo adoptado el Consejo Vasco de Universidades en su sesión celebrada el día 8 de noviembre de 2010 el Acuerdo por el que se designa a un miembro de la sociedad, no perteneciente a la comunidad universitaria, como representante de las universidades en el referido Consejo, y a los efectos de darle la publicidad debida,

RESUELVO:

Artículo único.– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el Acuerdo del Consejo Vasco de Universidades de 8 de noviembre de 2010, de designación de un representante en el Consejo Vasco de Universidades, que se contiene como anexo a la presente Orden.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de diciembre de 2010.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

ERANSKINA

EUSKADIKO UNIBERTSITATE KONTSEILUAREN AKORDIOA

Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran akordio hau aho batez hartu zuen.

AKORDIOA

Issa Katime Amashta jauna Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko kide izendatzea, unibertsitateak ordezkatuko dituen eta unibertsitate-erkidegokoa ez den gizarteko kide gisa.

ANEXO

ACUERDO DEL CONSEJO VASCO DE UNIVERSIDADES

El Consejo Vasco de Universidades en sesión celebrada el 8 de noviembre de 2010 adoptó por unanimidad el siguiente

ACUERDO

Nombrar a D. Issa Katime Amashta como miembro del Consejo Vasco de Universidades, en calidad de miembro de la sociedad, no perteneciente a la comunidad universitaria, que representará a las universidades.